

2015EKO EKAINAREN 13AN EGINDAKO KANPEZUKO UDALEKO ERATZE BILERAREN AKTA

Kanpezun, bi mila eta hamabosteko ekainaren hamahiruko hamaietan, ekainaren 19ko 5/1985 Hauteskunde-araubide Orokorraren Lege Organikoak 195 eta

196 artikuluetan eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 37 artikuluan zehaztutakoaren arabera ezarritakoa betez, Kanpezuko Udalbatzaren eraketa-bilkura ospatu asmoz, eta toki-korporazio kide guztiak aldatzeko 2015eko maiatzaren 24an egindako Udal-Hauteskudeen emaitzak ikusirik, marjinean agertzen diren zinegotzi hautatuak biltzen dira, ekitaldiaren fede ematen duen idazkari-kontuhartzaileak lagunduta.

BERTARATUAK

ZINEGOTZIAK

IBERNALO BASTERRA TXASKO and.

EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ jn.

D. MANUEL MUÑOZ MORENTÍN IDOYA ARENAZA SAENZ DEL BURGO and.

ZURIÑE SAENZ SAENZ and.

MIKEL HERRADOR IRIARTE jn.

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE and.

SUSANA SAENZ DE UGARTE CORRES and.

JUANJO GARCÍA DE ACILU PÉREZ jn.

IDAZKARIA

MIGUEL ANGEL OLVEIRA BARRAL jn.

ADIN MAHAIAREN ERAKETA

Bilera hasita adierazi ondoren, Udalbatzaren idazkariak ekainaren 19ko 5/1985 Hauteskunde-araubide Orokorraren Lege Organikoaren 195 artikulua irakurri du; eta hari jarraituz, adin mahaia osatu dute.

Hortaz, idazkariak banan-banan deitu ditu zinegotzi hautatuak, bakoitzaren nortasuna ziurtatzeko.

Ondokoek osatu dute adin mahaia: 54 urteko JUANJO GARCÍA DE ACILU PÉREZ jn. adinez nagusiena den zinegotzi hautatua -Adin Mahaiko burua izango da-, eta 26 urteko ZURIÑE SAENZ SAENZ and. adinez gazteena den zinegotzi hautetsia.

UDALA OSATU AURRETIK EGINDAKO EGIAZTAPENAK

Adin Mahaia osatuta, eta azaroaren 28ko 2568/1986 onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 36.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera ezarritakoa betez Idazkaria-kontuhartzaileak adierazten du zinegotzi hautatuen esku daudela Udal Kutxan eta banku-entitateetan gordailu dauden korporazioko izakinen eta baloreen ziurtagiriak, nola korporazioko ondarezerrendari dagozkion agiriak.

Mahaiko idazkariak egiaztagiri guztiak irakurri ditu, zinegotzi hautatuen nortasuna egiaztatzeko emandakoak alegia. Egiaztagiri horiek egiaztatu ditu eta zinegotzi hautetsi bakoitzak bere nortasuna ziurtatu du.

Jarraian, zinegotzi hautatu guztiek apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 75.7 artikulua aurreikusten dituen aitortpenak aurkeztu dituztela egiaztatzen da, eta Adin Mahaiko buruak zinegotzi hautatutei galdegiten die aitortpena eta gerora sortutako bateraezintasunik eragiten dien. Haiek ez dute adierazpenik egin.

Batetik, ekainaren 19ko 5/1985 Hauteskunde-araubide Orokorraren Lege Organikoaren 195.4 artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 37.4 artikuluan ezarritakoa betetzen dela kontuan harturik; eta, bestetik, bilkura honetara zinegotzi hautatuen gehiengo osoa bildu dela egiaztaturik, ekainaren 19ko 5/1985 Hauteskunde-araubide Orokorraren Lege Organikoaren 108.8 artikuluan araututako zin edo promes egiteko lege-betekizuna bete da.

ZIN EGITEKO EDO PROMES EGITEKO EKINTZA

Udalbatzaren idazkariak irakurri du ekainaren 19ko 5/1985 Hauteskunde-araubide Orokorraren Lege Organikoaren 108.8 artikulua -Zinegotzi hautatuek

karguaz jabetzeari buruzkoa, alegia-. Ondoren, zinegotzi hautetsi guztiei deitu diete zin edo promes egin dezaten.

Zin edo promes egin dute apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuak aurreikusten duen formularen bidez, ondokoa, alegia: «Zin dagit edota agintzen dut, nirere kontzientzia eta ohoreagatik, zintzo beteko ditudala Kanpezuko Udaleko zinegotzi karguak berekin dituen betebeharrak, Erregearekin leial izanez, eta Konstituzioa Estatuaren funtsezko arau gisa zainduz eta zainaraziz».

Jarraian, Udalbatzako idazkariak zinegotzi hautatu bakoitzari deitu dio eta bakoitzari formula irakurri dio. Hona hemen bakoitzak erantzundakoa:

- IBERNALO BASTERRA TXASKO and. (Kaixo): agintzen du, legeak beharturik. Gaztelaniazko formula erabiltzen du, baita euskaratua ere.
- EDUARDO RUIZ DE LOIZAGA SANZ jn. (Kaixo): agintzen du, legeak beharturik.
- MANUEL MUÑOZ MORENTÍN (Kaixo) jn.[hitzeman/agindu]: agintzen du, legeak beharturik.
- IDOYA ARENAZA SAENZ DEL BURGO and. (Kaixo): agintzen du.
- ZURIÑE SAENZ SAENZ and. (Kaixo): agintzen du. Gaztelaniazko formula erabiltzen du, baita euskaratua ere.
- MIKEL HERRADOR IRIARTE jn. (P.N.V.): hitzematzen du, legeak beharturik. Gaztelaniazko formula erabiltzen du, baita euskaratua ere.
- MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE and. (P.N.V.): agintzen du, legeak beharturik.
- SUSANA SAENZ DE UGARTE CORRES and. (P.N.V.): agintzen du, legeak beharturik.
- JUANJO GARCÍA DE ACILU PÉREZ and. (P.N.V.): agintzen du, legeak beharturik. Gaztelaniazko formula erabiltzen du, baita euskaratua ere.

Ekainaren 19ko 5/1985 Hauteskunde-araubide Orokorraren Lege Organikoaren 195. artikulua xedatutakoa bete ondoren, 12:10ak direnean, Mahaiko buruak Kanpezuko Udala osatutzat jo du 2015eko maiatzaren 24ko udal hauteskundeak burutu ondoren.

ALKATEAREN HAUTATZEA

Ondoren, Udaleko idazkariak ekainaren 19ko Hauteskunde-araubide Orokorren 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikulua irakurri du eta udaleko alkate-udalburu hautatzeari ekin dio.

a) Alkatetzarako hautagaiak izendatzea

Hori egin ondoren, adin mahaiko buruak zerrendako buru diren zinegotziei galdetu die alkatetzarako hautagaitzarekin jarraitzen duten edo ez; honako hau adierazi dute:

IBERNALO BASTERRA TXASKO and. (Kaixo): hautagaitzarekin jarraitzen du
MIKEL HERRADOR IRIARTE jn. (P.N.V.): hautagaitzarekin jarraitzen du

Ondoren Udaleko Alkatetzarako hautagaiak izendatu dituzte.

b) Bozkatzeko sistema aukeratzea

Hautagaiak izendatu ondoren, Mahaiko buruak zinegotzi hautatuei alkatea aukeratzeko bozkatzeko sistema zein izango den erabakitzeko eskatu die (Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 101. artikulua).

Bozketa sistema arrunta aukeratu dute. Zinegotzi jaun-andreek alkatetzarako hautagaiak eskua jasota bozkatu dituzte, eta emaitza ondokoa izan da:

IBERNALO BASTERRA TXASKO (Kaixo): aldeko 5 boto eta abstentzioak, 4 boto.

Ondorioz, 12:15ak direnean, eta bozketaren emaitza ikusita: 9 zinegotzi direnez, eta gehiengo osoa 5 direnez; adin mahaiko buruak IBERNALO BASTERRA TXASKO, KAIKO zerrendako burua, udaleko alkate-udalburu izendatu du.

KARGUA HARTZEA

Toki Araubidearen Testu Bateginaren 18. artikulua eta Antolakuntza eta Jarduera-araudiaren 40.2 artikuluekin bat etorritik, idazkariak Konstituzioa ontzat hartzeari buruzko formula irakurri du, ondokoa alegia: "Zin dagit (edota agintzen dut), nire kontzientzia eta ohoreagatik, zintzo beteko ditudala Kanpezuko Udaleko

alkate-udalburu karguak berekin dituen betebeharrak, Erregearekin leial izanez, eta Konstituzioa Estatuaren funtsezko arau gisa zainduz eta zainaraziz”.

Ondoren, Alkateak ondokoa adierazi du: Agintzen du. Gaztelaniazko formula erabiltzen du, baita euskaratua ere.

Zin egin eta gero, udaletik irteten den Alkate jaunak karguaren ikurrak -alkate makila- eman dizkio Ibernalo Basterra Txasko andreari. Aurrerantzean hura izango da Bilkurako presidentea, Adin Mahaia deseginda ondoren.

Jarraian, Ibernalo Basterra Txasko andreak, Alkatea-Udalburua, hitza hartu du Zinegotzi jaun-andreei eta herritarrei emandako babesagatik eskerrak emateko; herriaren alde eta herrirako lan egiteko prest agertu da. Orduan, hitza eman dio udal korporazioan dagoen beste indar politikoaren ordezkariari. Horrek Alkate andrea zoriondu du izendapenagatik.

Jarraian, Ibernalo Basterra Txasko Alkate-udalburu andreak bilkura amaitutzat eman du egun bereko hamabiak eta hamasei minututan. Nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.